



2015EKO IRAILAREN 21EAN BATZORDE IRAUNKORRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2015eko irailaren 21ean, 18:35tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzorde Iraunkorrek, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK

BATZORDEAREN LEHENDAKARIA: Josu Amilibia Alsua
ALEGIAKO UDALA: Unai Iraola Agirrezabala
ASTEASUKO UDALA: Joseba Txapartegi Nieve
BERASTEGIKO UDALA: Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA: Joseba Iñigo Aiertza Mujika
IBARRAKO UDALA: Mikel Agirrezabala
IRURAKO UDALA: Jose Ramon Epelde Irizar
LARRAULGO UDALA: Aritz Sarria
TOLOSAKO UDALA: Patxi Amantegi Zubiria
VILLABONAKO UDALA: Ivan Aguirre Saiz
ZIZURKILGO UDALA: Aitor Sarasua Arruti

Ordezkeri huez gain, Irurako Udaletik ere ordezkoa etorri da, Jesus Maria Alonso Insausti.

ETORRI EZ DIRENAK:

Ordezkeri guztiak etorri dira.

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2014 ekitaldiko aurrekontuaren Kontu Orokorraren berri ematea.**
- 2. Albo kargako errefusa edukiontzien berrerabilpena.**
- 3. Irurako Udalaren eskaera: atez ateko bilketa sistema kendu eta edukiontzien bitarteko bilketa sistema ezartzea.**
- 4. Hondakinen gaikako bilketaren informazioa zabaltzeko hezitzaileak kontratatzea.**
- 5. Galde-erreguak.**

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanuek eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Estatutuen 45. Artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, bilera eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.



1. 2014 ekitaldiko aurrekontuaren Kontu Orokorraren berri ematea.

Mankomunitateko kontuhartzaileak hitza hartu du adierazteko prestatu dela 2014 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren espedientea. Hurrengo pausoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea izango da, alegazioak egiteko hamabost eguneko epea ezarriz. Ondoren, hurrengo Batzarraren esku geratuko da Kontu Orokorraren onespena.

Beraz, Batzorde Iraunkorra jakinaren gainean geratu da.

Bestalde, Idazkariak gogorazi du azkeneko Batzarrean onartu zela Batzorde Iraunkorrari Kontuetarako Batzorde Berezi bezala aritzeko ahalmena ematea. Ondorioz, Kontuetarako Batzorde Bereziak ez du inongo eragozpenik jarri 2014ko Kontu Orokorraren espedienteari eta jakinaren gainean geratu da.

2. Albo kargako errefusa edukiontzien berrerabilpena.

Teknikariak hitza hartu du gaia esplikatzeko bildutakoei. Azkeneko 2-3 urtetan, zabor bilketa sisteman izan diren aldaketen ondorioz, selektibako edukiontzirik gabe geratu da mankomunitatea, hau da, paper eta ontzien edukiontzirik gabe. Aldiz, alboko kargako errefusaren edukiontziak soberan daude.

Soberan dauden edukiontziak aprobetxatzeko asmoz, froga bat egin da Tolosako Agintari kalean. Horretarako, aipatutako errefusaren edukiontzi batzuk eraldatu egin dira, ahoa irekiz eta margotuz, edukiontzi hori eta urdin bihurtuz. Aldaketa argiago ikus dadin, argazki batzuk banatu dira batzordekideei. Pedala jarri edo kentzeko aukera badago ere.

Tolosako ordezkariak bere kezka adierazi du edukiontzi eraldatu hauen inguruan. Bere ustez, ahoa txikia badute eta herritarra zabor poltsa handi batekin badator, arriskua dagoelako lurrean utzi dezan. Horregatik ez du gaizki ikusten pedala mantentzea edukiontzietan.

Lehendakariak, aldiz, beste arrisku bat ikusten dio pedalari; edukiontziaren tapa guztia altxatuz gero, bota behar ez diren hondakinak azaldu daitezkeelako.

Alegiako ordezkariak galdetu du ea euria sartu daitekeen zulo horietatik. Teknikariak erantzun dio ez direla kejaratu honetaz tratamendu plantetan.

Teknikariak azaldu du edukiontziak eraldatzeko kostua: 151,25 € (BEZa barne) edukiontzi bakoitzeko, eta 25 hori eta beste 25 urdin behar direla. Astean 6 edukiontzi aldatzeko aukera aurreikusten da. Gastu guztia 7.562,50€ eta 2015 aurrekontuko dagokion partidaren gain izango dira.

Beraz, proposamena aztertu ondoren, Batzorde Iraunkor honek, ahobatez,



DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Albo kargako errefusa edukiontzak berrerabiltzea, proposamenean jasotako baldintza eta xehetasunen arabera.

BIGARRENA.- Berrerabilpenak sortuko duen gastua, 7.562,50€-takoa, onartzea.

3. Irurako udalaren eskaera: atez ateko bilketa sistema kendu eta edukiontzien bitarteko bilketa sistema ezartzea.

Teknikariak hitza hartu du azalduz, 2015eko uztailaren 30ean, Irurako udalaren aldetik eskaera jaso zela, gaur egun daukaten atez ateko bilketa sistema kendu eta edukiontzien bidezko sistemara itzultzeko. Ondoren, hainbat bilera izan dira, bai Irurako udaleko ordezkariekin eta baita UTE Tolosaldearekin ere, hau da, zabor bilketa eta garraioaren enpresarekin. Ikusi denez udal ordezkariak ahalik eta azkarren egin nahi dutela aldaketa, mankomunitatearen aldetik proposatu zaie papera eta ontzien bilketak izan daitezkeen lehenak aldatzen, errazagoak direlako. Udaletik onartu dute proposamena, baina kontuan harturik gainontzeko frakzioen bilketa ere nahi dutela aldatzea.

Teknikariak azaldu ditu hemendik aurrera betebeharreko pausoak: tekniko eta ekonomiko aldetik baloratu, behar diren txostenak eskatu, UTE Tolosaldearen aldetik izan daitezkeen alegazioak aztertu, eta, azkenik, Batzarrak onartu beharko luke kontratuaren aldaketa. Kalkulatzen da sei hilabete inguruko epea beharko dela sistema aldaketa egiteko.

Lehendakariak argitu nahi du Batzorde honi zer eskatzen zaion momentu honetan: aldaketa prozesua aurrera eramatea edo kontratuaren aldaketa. Idazkariak erantzun dio Batzordeak bakarrik onartu behar duela aldaketa prozesua martxan jartzea ala ez. Bilketa kontratuaren aldaketa Batzarrari soilik egokitzen zaio.

Beraz, hau guztia azterturik, Batzorde Iraunkor honek, ahobatez,

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Irurako herrian edukiontziak ezartzeko azterketa teknikoa eta ekonomikoa martxan jartzea.

BIGARRENA.- Proposamena Batzarrera eramatea azken erabakia har dezan.

4. Hondakinen gaikako bilketaren informazioa zabaltzeko hezitzaileak kontratatzea.

Teknikariak hitza hartu du azalduz gaur egun bi hezitzaile daudela kontratatuak eskualde mailan, hondakinen gaikako bilketaren informazioa zabaltzeko. Besteak beste, atez ateko bilketari buruzko zalantzak argitzen dituzte, Tolosako bilketari buruzkoak ere, batez ere sortzaile berezienak (komertzioak, hostalaritza...), industriako edukiontziak banatzen dituzte etab.



Kontratu hau datorren azaroaren 9an amaitzen da, eta erabaki behar da luzatzen den ala ez. Mankomunitatearen aldetik proposatzen dena da kontratua luzatzea, teknikoki justifikatua dagoelako, aipatu diren lanez gain, beharra ikusten delako industrigunetan kanpaina pertsonalizatua martxan jartzea, enpresa ugarik ez dituztelako oraindik ondo kudeatzen beraien zaborrak. Kontratuak 84.700 € (BEZa barne) inguruko kostua dauka.

Ondorioz, Batzorde Iraunkor honek, ahobatez,

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Hondakinen gaikako bilketaren informazioa zabaltzeko hezitzaileen gaur egungo kontratua luzatzea.

BIGARRENA.- Lehendakaria ahalmentzea kontratuaren luzapena gauzatzeko.

Ondoren, teknikariak adierazi du presazko bi gai daudela gai-zerrendatik kanpo, beraz hauek azaltzera ekin dio.

Lehen gaia: Hondakinen karakterizazio proposamenak

Lehenengo urteko udazkenean, eskualdeko 28 herrietan hondakinen karakterizazioak egin ziren, konpostajearen ezarpen maila aztertzeko helburuarekin. Horretarako, errefusaren edukiontzi batzuk aztertu ziren. Baina, orain arte ez da egin selektibako edukiontzien karakterizazioa, hau da, papera eta ontzienak, eta beharrezkoa ikusten da aztertzea zenbat zabor desegoki egon daitekeen, bilketa sistemaren arabera.

Horretarako, teknikariak bi karakterizazio egitea proposatzen du: bata, oraingo egoera aztertuko duena, bilketa sistemaren arabera, eta, bestea, bilketa sistema berriak ezarriko balira

Lehenengo faseko karakterizazioak bost zatitan banatuko dira:

1_Andoain: herri honetan oraindik ez da egin inongo aldaketarik bilketa sisteman, eta borondatezkoa denez gaur egungoa, aurreikusi daiteke zabor desegokiaren kopurua txikia izango dela. Guztira 20 edukiontzi aztertzea proposatzen da auzo desberdinetan, 10 paperarenak eta beste 10 ontzienak.

2_Tolosa: gauza bera proposatzen da herri honetan, guztira 20 edukiontzi karakterizatzea.

3_Villabona: kasu honetan, herri txikiagoa denez, paperaren 5 edukiontzi aztertzea proposatzen da. Ontziak atez ate biltzen direnez, bilketa osoa aztertzea proposatzen da.

4_Irura: Bi bilketak atez ate direnez, biak osotasunean aztertzea proposatzen da.



5_Landa eremua: kasu honetan, errefusa nola jasotzen den kontuan hartu da; ondorioz, lau karakterizazio egin beharko lirateke proposatzen diren herri hauetan

- Errefusa CL edukiontzi irekia: Alkiza.
- Errefusa 240 l.ko edukiontzietan: Amezketa.
- Errefusa atez ate: Aduna.
- Bilkea osoa atez ate: Belauntza.

Guztira zortzi karakterizazio egingo lirateke lehenengo fase honetan.

Bigarren faseko karakterizazioak 4 herritan egitea proposatzen da, lehenengo fasean aipatutako edukiontzi kopuru berdinetan, beti ere udalerrri hauetako bilketa sistemetan aldaketak egingo balira: Andoain, Tolosa, Villabona eta Irura.

Karakterizazio guzti hauek egitea 17.000€ kostua (BEZa barne) izango luke, aurtengo aurrekontuan prestatu delarik partida horretarako. Kanpoko enpresa batekin ere kontaktuak izan dira lan hau burutzeko (diru kopuruagatik kontratu txikia legokioke, lehiaketa beharrik gabe), baina beste edozein enpresatara ere jo daiteke.

Tolosako ordezkariak hitza hartu du bere adostasuna adieraziz karakterizazio proposamen honi, eta azpimarratu nahi izan du lortuko diren emaitzak eta datuak interpretazio desberdinak izango dituztela. Bere ustez, garrantzitsua da gai honetaz hurrengo Batzorde Iraunkorretan eztabaidatzea. Azkenik, “0 km.” aldeko iritzia azaldu du kanpoko enpresak kontratatzerako garaian, hau da, gertuenak daudenak. Teknikariak eskatu dizkio enpresa horien datuak pasatzea.

Beraz, guztia aztertu ondoren, Batzorde Iraunkor honek, ahobatez,

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Aipatutako hondakinen karakterizazio proposamena martxan jartzea.

BIGARRENA.- Proposamena Batzarrerera eramatea azken erabakia har dezan.

Bigarren gaia: Konpostaje plangintza

Etxeko konpostajearen segimendu eta ezarpen kontratua, III Fasekoa, bukatzean da hurrengo hilean. Orain arte, aurrekontuko 132.000€ inguru erabili dira, 3.500€ inguru gelditzen direlarik gastatzeko. Kontuan hartu behar da ere Foru Aldunditik diru laguntzak jaso direla kanpaina hau finantzatzeko.

Falta den diru kopuru hori erabiltzeko, lehenengo batzuk finkatu dira:

- Sortzaile berezien konpostaje guneak mantendu. Adib.: Alkizako jatetxea, Larraulgo ostatua, haurreskolak...



- Ezarritako konpostagailuen jarraipena: ezarpenetik 2-3 hilabetetara egiten dira.
- Asteasu herrian zabor bilketa zerbitzuan aldaketa batzuk egin dira azkenaldian (errefusa edukiontzi txiki eta aho estuekin herri gunean jarri dira) eta aztertu nahi da zein ondorio izan ditzaketen.

Desbideraketa baten berri ere eman du teknikariak, konpostaje kontratu honetan gertatutakoa: Anoetan, auzokonpostaje gunek zaintzeko, Spora, kontratuaren esleipendunak, mantentze lanak egin ditu. Ondorioz, diru dexente kontsumitu da. Esan daiteke gaizki-ulertu bat gertatu dela enpresa, udala eta mankomunitatearen artean.

Beraz, konpostaje gai honetan ondorengo proposatzen da:

- Lehen aipatutako lehentasunak aurrera eramatea, falta diren 3.500€ gastatuz. Honek 264€-ko defizita sortuko luke, kreditu aldaketa erabiliz finantzatzeko.

-Anoetako auzokonpostaje gunek gehiago ez mantentzea.

Tolosako ordezkariak hitza hartu du azpimarratuz 26.000€ ordaintzen dituela Tolosako udalak mankomunitateari konpostajerako.

Lehendakariak berriro dio gaizki-ulertu puntuala gertatu dela Anoetan, beste herrietan ez delarik egon horrelako arazorik. Orain dela egun batzuk detektatu dela akatsa eta jada hitzegin duela Anoetako alkatearekin, esanez diru laguntza hori eten egingo dela. Gogorarazi du konposgune komunitarioak herriak berak kudeatzen dituela, mankomunitateak aholkularitza lanak bakarrik egiten dituelarik.

Ibarrako ordezkariak adierazi du 3-4 hilabete iraun duela Anoetakoak, eta ez dela hainbesterako izan.

Villabonako ordezkariaren iritziz, kontratuan aipatutako kopurua ordaindu beharko litzaioke enpresari, eta ez ahoz esaten dena. Lehendakariak erantzun dio aurreikuspenetan oinarritua dagoela kontratua, ez dagoela prezio finkorik. Hala ere, Villabonako ordezkariak dio enpresaren errua izan bada, berari erreklamatu beharko zaiola. Idazkariak erantzun dio, kasu honetan, lana eginda dagoela, eta mankomunitatea derrigortua dagoela lana ordaintzera.

Berastegiko ordezkariak hitza hartu esanez ahoz hartutako erabaki bat izan dela, ez dagoela kontratuan idatzita. Kontratu barruko lanak izan direla azaldu du, eta akatsa gertatu dela Anoetako auzokonpostajearen mantenua astero egin delako, hilabetero izan beharrean. Gaineratu du kontratuak berak eskaintzen duela aukera lan hauek egiteko.

Tolosako ordezkariak ez du ulertzen zergatik herri batzuetan horrelako lanak egiten diren, eta beste batzuetan ez ordea. Lehendakariak erantzun dio esanez herri bakar batean gertatu dela desbideraketa (Anoetan), eta alde zuzenetik finkatutako helburuen arabera jarduten dela herri guztietan.



Villabonako ordezkariak uste du erabaki eta mandamenduak idatziz jarri behar direla, gaizki-ulertuak ez gertatzeko. Berastegiko ordezkariak erantzun dio zaila dela dena idatziz jartzea, eguneroko kudeaketan azkartasunagatik ahoz eman beharreko agindu asko hartu behar direlako.

Alegiako ordezkariak, ildo hori jarraituz, gogorarazi nahi du egunero erabakiak hartu behar direnean akatsak gertatu daitezkeela, gaizki-ulertu moduan edo beste era batean, eta herri guztiak elkarrekin hartzeko erabakiak direla, ez bakoitzak bere aldetik.

Beraz, guztia aztertu ondoren, Batzorde Iraunkor honek, ahobatez,

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Anoetako auzokonpostaje guneak gehiago ez mantentzea.

BIGARRENA.- Sortzaile berezien konpostaje guneak mantendu eta Asteasuko autokonpostaje jarraipena egitea.

HIRUGARRENA.- Proposamena Batzarrera eramatea azken erabakia har dezan.

5. Galde-erreguak.

Villabonako ordezkariak hitza hartu du eskatzeko Iruran egingo den azterketa tekniko eta ekonomikoa, bilketa sistema aldatzeko, bere herrian ere egin ahal izatea. Idazkariak erantzun dio idatziz aurkeztu behar dutela bere eskaera, Irurak egin duen bezala.

Lehendakariak adierazi du UTE Tolosaldea enpresarekin izan duten bileraren ostean, enpresa honek eskatzen duela bilketa sistemetan egin behar diren aldaketa guztiak batera aurkeztea, errazagoa delako. Gogorarazi du beste mankomunitateekin ere egiten dutela lan eta hauteskundeak pasa eta gero herri askoren eskaerak jasotzen ari direla.

Tolosako ordezkariak dio Irurak bost zabor frakzioetan bilketa aldaketak eskatu dituela, eta mankomunitateak berak erantzun duela momentuz bi besterik ez aldatzeko. Beraz, argi ikusten dela Irurako herriak borondatea daukala aldaketa guztiak batera egiteko. Teknikariak erantzun dio esanez momentuz bakarrik bi frakzio aldatzeko arrazoia erraztasuna eta azkartasuna direla.

Lehendakariak azaldu du bost frakzioen aldaketak gauzatzeko epe luzeagoa eskatzen duela, eta horregatik proposatu dela hasieran bi aldatzea. Gogorarazi du aurreko legegaldian atez ateko bilketa ahalik eta azkarren ezartzeko zegoen nahia, baina beste herrien menpe zeudenez, azkenean bi urte beranduago martxan jarri zela sistema berria. Berriro ekarri du eztabaidara UTE Tolosaldearen gogoia, hau da, aldaketa guztiak batera aurkeztea, baina denbora luzea emango duenez, horregatik zatika gauzak aurrera eramatea proposatzen dela. Azkenik, esan du eskatzea librea dela, baina errealitatea beste gauza desberdina dela.



Tolosako ordezkariak jakin nahi du noiz izango den hurrengo Batzarra. Idazkariak erantzun dio UTE Tolosaldea enpresa esleipendunarekin akordio batera iristen denean ospatuko dela

Eta bileraren helburua beteta, gaueko zortziak hogeitahamabost gutxi direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA